



BESTAK ELIZONDO

2025

ttipi-ttapa | 882 zk. | 2025-07-17



ELIZONDOKO BESTAK 2025

Uztailak 19, larunbata

12:00etan Elizondoko bestetako III. Igeriketa txapelketa Giltxaurdiko igerilekuan

Uztailak 24, ortzeguna Bezpera Eguna

12:00etan txupinazoa eta Baztan Zopak plazan eta ondotik konpartsa-ekin, txistulariekin, gaitariekin eta Tuku-Tuku Txarangarekin buelta herrian barna, Balleko Etxetik hasita adinekoen egoitzaraino. **16:00etan** haurrendako jolasak Kuarteleko Zelaian Kulki Kultur Kirolak taldearekin. **18:00etan** Sasix eta Puyix-ekin elektropotea, Mendi ostatutik abiatuta eta **19:30ean** berriz ere Herriko Etxetik hasita, karrika dantza; konpartsa-ekin, txistulariekin, gaitariekin eta bandarekin. **20:00etan** Salbea elizan eta ondotik berriz ere karrika dantza eta erraldioen dantza plazan. **21:30ean** Tuku-Tuku txarangarekin buelta herri-ritik barna eta **22:00etan** kontzertuak plazan: Andoni Ollokiegi, Kaparrak, Sedientos de Cumbia, Malakias MX3 eta DJ Aiakate. Bitartean, **22:30ean** Lurrikara gau Elektronikoa Merkatuko Plazan.

Uztailak 25, ortziralea Santio Eguna

09:30ean dianak. **10:30ean** karrik dantza Herriko Etxetik hasita eta **11:00etan** meza nagusia elizan. **12:00etan** karrika dantza elizatik abiatuta. **12:30ean** ekitaldiak plazan: Mutildantzak, Erraldioen Dantza Elizondoko Banderaren laguntzaz eta luntx herrikoia. **17:00etan** Kiki, Koko eta Moko pailazoak plazan eta **17:30ean** Elutxa Txaranga herri-ritik barna. Bitartean **17:30ean** Herri-ritik Herri Kirolen txapelketa jar-



UTZITAKOIA

Juli Ostatua

Gosariak eta bazkariak egunero, afariak asteburu eta jaiegunetan.

Etxeko Janaria

Giltxaurdi, 6 | ELIZONDO

948 452 462

ESKISAROI

J A T E T X E A

T 948 580 013
Jaime Urrutia 40 31700 Elizondo
www.eskisaroi.eus

Ongi
pasa
bestak!

A. ETXEBERRIA

PINTURAK

fatxadak barnealdeak
etxebititzak

Ongi pasa bestak!

Akullegi, 6 - 31700 Elizondo
Tel (0034) 607 587 196
etxebeandoni@hotmail.com



CITROËN

Ongi pasa
bestak!

SANSIÑENA garajea

TAILER MEKANIKOA
KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA
ENGRASEAK
ERABILITAKO NEKAZARITZA TRESNERIA
AGRIA, NEW HOLLAND TRAKTOREAK
ZERBITZU OFIZIALA:



Santiago, 37 | ELIZONDO | 948 580 406

Bar Saioa Ostatua

**HANBURGESAK | BOKATAK
EGUNEKO MENUA
PLATER KONBINTUAK
ENTSALADAK | PINTXOAK**

**ONGI PASA
BESTAK!**

Santiago 96 Behea | ELIZONDO

948 58 01 94

Ongi pasa bestak!

MAPFRE

Etxea, autoa, bizitza, jubilaria...

Jaime Urrutia, 8 • 31700 ELIZONDO • T.948 58 03 76

"LA BAZTANESA" S.A.

BIDAIA-RIEN ZERBITZURA

Elizondo | Donostia | Iruña | Irun | Hondarribia | Doneztebe...

T. 948 580 129 | Ongi pasa bestak!

www.labaztanesa.com

ANZABAL

INMOBILIARIA

ZURICH ASEGUURAK

www.anzabal.com

Santiago, 15 ELIZONDO

+34 948 580 804

Albaitaritzza

www.albaitaritzza.com

Tlfno.: 948 580 980

Materiala

Botika

Hazia

Osagarri mineralak

Bildots eta aratxeendako esnea

Xaboi eta desinfektatzaileak

Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak

Albaitack

www.albaitack.com

Tlfno.: 948 506 169

ALBAIKIDE

Tfnoa.: 902 169 169

www.albaikide.com

Albaitari zerbitzua



dunaldia Iriarte Pilotalekuan. **20:30ean** dantza herrikoiak Ziga Plazan eta ondotik mutil dantzak herriko plazan eta **22:30ean** Txingones de la Rencle mariatxiak. Gero Olgeta musika taldearekin dantzaldia plazan.

Uztailak 26, larunbata Haur eta Gazte Eguna

09:30ean dianak Beartzunen. **11:00etan** konpartsaekin itzulua adinekoen egoitzatik abiatuta eta bitartean **11:00etatik 14:00etara** uretako puzgarriak Giltxaurdi igerilekuan. **14:00etan** kuadrillen bazkaria Kuartelego Zelaian. **16:30-19:30** aurpegi margotzea Ahaztuen Plazan. **17:00etan** ginkana herriko plazan eta ondotik txokolatada Ahaztuen Plazan. **17:30ean** pilota jaialdia Baztan Pilotalekuan. **18:00etan** poteoa elkartez elkarrekin Hamarru Elektrotxarangarekin. **20:30ean** dantza herrikoiak Ziga Plazan eta ondotik mutil dantzak herriko plazan. **23:00etatik** aitzin era kontzertuak plazan: Dupla, Zilibito Records eta ondotik DJ Fifi eta Fefa.

Uztailak 27, igandea Adinekoen Eguna

09:30ean dianak. **11:00etan** konpartsaekin herri itzulua Lanbide Esko-

latik abiatuta eta bitartean **11:00etatik aitzinera** ere ludoteka Iriarte Pilotalekuan. **12:00etan** Recreo de Elizondo musika bandaren eskutik emanaldia elizako belardian. **16:00etan** ludoteka Iriarte Pilotalekuan. **16:30ean** Elizondoko XIII. Mus txapelketa Xalbador karrikan. **17:00etan** Elutxa Txaranga herrian barna eta baita ere Menditarra adinekoen egoitzan. **17:30ean** Elizondoko III. Boneta Jaurtiketa txapelketa Giltxaurdi karrikan. **19:00etan** bertso saioa plazan. **20:30ean** dantza herrikoiak Ziga Plazan eta ondotik mutil dantzak herriko plazan. **22:30ean** kontzertuak plazan: Janus Lester eta Bizphiru Pelau.

Uztailak 28, astelehena Herriaren Eguna

09:30ean dianak. **11:00etan** konpartsaekin itzulua Herriko Etxetik hasita. **12:30ean** Elutxa Txaranga herrian barna. **14:00etan** Zikiro Jatea Iriarte Pilotalekuan eta ondotik pilotalekutik abiatuta Elutxa Txarangarekin poteoa. **18:00etan** Hauspolariek plazan. **21:00etan** mutil dantzak eta dantza herrikoiak herriko plazan. **00:00etan** Gizajoa ni eta Elutxa Txarangarekin poteoa plazatik abiatuta. Ondotik DJ Piek plazan.



asegi asesorias

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es

www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 • F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 • F. 948 451 304	Eltzeta, 20 31770 LESAKA T. 948 638 077
---	---	---	---

suteia-zaldain
instalazioak
IGOGAILUAK
PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

Ongi pasa
bestak!

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadan guztiz integratuak. Portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aulkian daudenentzako egokitua.



3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 73 | ELIZONDO | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com



ALMACO
Baztan

Besta zoriontsuak pasa!

ALMACO Eraikuntzako materialak

Informazio eta aukera gehiago:
www.almacobaztan.com
f i

📍 Errepide nagusia, Elizondo
☎ Tel. 948 580 104

GAMMA

«Diseinua gure herria bereizi egiten duenetik ateratzea nahi nuen»

GANIX GOROSABEL BESTETAKO KAMISETEN DISEINATZAILEA



Elizondoko Herriak «herri batasuna» alde, zapiez gain, kamiseta urdinak eta polo zuriak atera ditu aurren, bestetan elizondoarren nortasuna agerian uztearren. «Ea herriko plaza urdinez eta zuriz margotzea lortzen dugun aurtengo bestetan».

Diseinatzaile

Arropetako diseinuaren sortzailea Ganix Gorosabel elizondoarra izan da. «Nire izebarengandik ailegatu zitzaidan proposamena. Herriko kargoduna da eta fabore bezala eskatu zidan», azaldu du Gorosabelek. «Jakin-min handiko Elizondoko mutil gazte bat, egunez programatzaile eta gaez diseinatzaile» gisa definitu du bere burua eta diseinuarekiko atxi-

kimendu hori eta bere izaeraren parte den jakin-mina aprobetxatuta proposamenari baieztoko erantzuna eman ziola azaldu du: «Ilustratzaile profesionala ez naizen arren, erronka onartu eta zirriborroak egiten hasi nintzen». Proiektuarekin zerotik hasi ez zela aitortu du, proposamena egin ziotenerako oinarriak finkatuta baitzeuden eta egin beharreko lana hala-nola bideratuta baitzegoen. «Zirriborro bat pasatu zidaten kolore bakarreko kartel bat diseinatzeko ideiarekin, letra batzuk ilustrazio bihurtzeko ideiarekin». Hala ere, lan handia egin behar izan du eta esker-tzekoa da bere inplikazioa. «Proiektu hau egiteko ez nuen denbora aunitzik izan, bertze hainbat proiektuarekin

ere lanean ari nintzelako, baina hala ere egitea erabaki nuen».

Bere lana, batez ere, letrak ikonoekin tartekatzea eta ordezkatzeta izan da. «Argi ikusi daiteke kamisetan *Elizondoko bestak* paratzen duela, baina arretaz begiratzen badugu letrak herriaren esentzia bera eta bestak irudikatzen dituzten ikono bihurtzen direla ohartuko gara: Buruhandi bat, erraldoi bat eta baita herriko beste urtero hasiera ematen zien Mayi Juanikotena bera ere». Bere helburua Elizondoko bestak irudikatzeaz gain, haratago doan helburu hunkigarri bat dela esplikatu du: «Helburua, gure tradizioei omenaldia eginez, Elizondoko besten esentzia eta eragiten dituzten sentimenduak biltzea izan da. Horrez gain, kamiseta ikusten duen edonori irribarrea aurpegian eragitea ere bada helburua». Gainera, Mayi Juanikotena omendu nahi izan du Gorosabelek eta, hortaz, letrako bat Mayiren irudikapenarekin ordezkatu du.

Mayiri omenaldia

Nor izan zen Mayi Juanikotena? Mayi Juanikotena, Miguel Mari Junikotena Hita izen osoz, urte luzez Elizondoko bestak antolatzen eta herriko bertze hainbat ekitalditan parte hartzen ibili zen elizondoarra izan zen. Joan den urteko abuztuan hil zen, 2024ko Elizondoko bestetako txupinazoa bota eta gero. Juanikotena beti ibili zen altxaferoekin hemendik harat urtero omenduak ziren horiei txupinazoa botatzea ahalbidetzen. Eta, hortaz, joan den urtean, herriari urte luzez eskaini zion zerbitzu ugariengatik eta bere eskuzabaltasunagatik bera izan zen omendua. Hainbertze urteren ondotik berari tokatu zitzaion

bertze aldean egotea eta txupinazoa botatz bere biziko azken bestak izanen zirenei hasiera ematea. Gorosabelek berak ere urte bat mansoago omenaldi ttiki bat egin nahi izan dio, hurbileko pertsona zuelako Mayi. Bere barridea zen eta ttikia zenetik ezagutzen zuen, beti bere altxaferoekin bueltaka.

Irudi solteak

Diseinua sortzeko orduan, bere inspirazio iturri nagusia Elizondoko bestak imajinatzean burura datozkion irudi solteak izan direla erran du: «Buruhandien, erraldoien, jendez gainezka dagoen plazaren eta suziariaren jaurtiketaren momentuaren irudiak izan dira inspirazio iturri». Irudi horiek eta gehiago baitira *herriko bestak* hitzak ahoskatzean burura datozkionak: «Bestak hitzak aditzean txupinazoaren ondotik zapi jartzea eta besten hasmenta, erraldoi eta buruhandien konpainiaz karriketako giroa, gaiteroak eta txar-rangak herria alaitzen eta, batez ere, haur eta helduen aurpegietako poza erakusten dituzten irudiak etortzen zaizkit burura».

Erronka

Azkenik, prozesua lineala izan ez dela ere aipatu du, «beti gauzak hobetzen saiatzen den mutila» dela ziurtatu baitu. «Erronka handiena kontzeptu solteak letra bakar baten barnean sartzen ziren formetan transformatzea izan da, irakurgarritasuna ez galtzeko asmotan. Hortaz, iritziak behin eta berriz eskatu ditut eta, azkenean, funtzionatzen ez zuena baztertuz eta funtsezkoari eutsiz, azken emaitza hau lortu dut». Lan handia egin ondotik emaitzarekin kontent gelditu da Gorosabel.



EGUZKIALDE OSTATUA

Ongi pasa bestak!!!



Eguneko menua
Errazioak
Entsaladak
Sandwichak
Hamburgesak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak

T. 948 45 26 26 - Santiago 43 - ELIZONDO



Ongi pasa bestak!

Drogeria · Garbiketa produktuak · Ferretaria
Sukaldeko tresnak · Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak · Moda...

T. 608 016 052 San Andres, 66 · NARBARTE

Goizalde ostatua

Ongi pasa bestak!!

Pintxoak
Eguneko menua
Karta
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Entsaladak
Hamburgesak
Errazioak

Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO - Tel.: +34 948 58 13 34 - goizaldeostatua.com





elicetxe

suministros electricos

material elektrikoak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 581 261
Santiago, 83 Ind. · ELIZONDO
elicetxe@elicetxe.es
www.elicetxe.es

RotuBaztan

Rotulación y diseño



- Autoak errotulatzea • Lokalak errotulatzea
- Kristalak tindatzea • Seinaleak
- Arropa estanzazioa • Imprimatze digitala
- Bisita txartelak, albaranak, gutunak, etab.
- Eranskailuak eta kartelak personalizatzea
- Olanak • 3dko kartel argidunak

660 721 762
rotubaztan@gmail.com
Pol. Ind. Zaldubia 1. 31730 Irurita (Na)

Gureaut
TAILERRAK

Mekanika, elektrizitatea, ibilgailuen salerosketa

ONGI PASA BESTAK!

Zaldubia industrialdea | 31730 Irurita
Tel.: 948 580 225 · M. 619 328 145
gureauto2@gmail.com



Maite Iriarte Yanci

ASEGURUAK ETA INBERTSIOAK
HURBILTASUNA ETA KONFIANTZA



Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!!

📍 Santiago, 72 | ELIZONDO
T. 948 58 05 04 📞 669 32 63 33
📧 oc.elizondo@generalimediadores.es

erran.
eus



ongi pasa bestak!

**Dendako artikuluen
likidazioa**

**deskontu
handiak**

H. LOPEZ

Erreforma integralak eta gremioen koordinazioa

Aire girotua • Tximiniak • Igerilekuen salmenta
Gas, gasolio eta biomasazko galdara eta berogailuak
Zeramika eta bainugelako altzarien salmenta

Santiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com



ELIZONDO

**Foru plaza, 3
ELIZONDO
T. 948 580 005**



Astelehenetik larunbatera **09:00-21:00**

BEAARRAINDEGIA

esarte



ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA

«Gizartean izaten diren aldaketek eragina dute besten antolaketan»

ANNE GARMENDIA ELIZONDOKO BESTETAKO KOMISIOKO KIDEA



Anne Garmendia elizondarra, Elizondoko Bestetako Komision dago aspalditik eta aurten ere herriko bestak antolatzen ibili da buru-belarri. «8 urte daramatzat bestak antolatzen, 2018an sartu bainintzen komision. Baina, komision sartu aitzinetik laguntzen ibiltzen nintzen ere etxez etxe bestetako programak banatzen eta bertzelakoetan».

Indibidualistagoak

Zortzi urte hauetan komision eta bestetako antolaketan aldaketak egon direla aitortu du eta aldaketa horiek gizartearen eraldatze bidean gertatzen

diren joan-etorrien efektu zuzen gisa aurkeztu ditu. «Gauzak aldatu egin dira urte hauetan, aldaketak beti badaudelako, bai programaren antolaketan baita elkarlanean ere. Azken finean, gizartean gertatzen diren aldaketek eragina izaten baitute besten antolaketan ere». Horren harira, Garmendiak «herri mailan gauzak antolatuz elkarlanean aritzea gustuko duen gazte» gisa definitu du bere burua eta «herri giro osasuntsu eta polita» sortzeko helburuarekin lanean ibiltzen dela erran du. Baina, urteak pasatu ahala, geroz eta zailagoa bihurtzen ari da edozein gauza antolatzea. «Geroz eta laguntza guttiago hartzen dugu herritarren partetik, kontuan hartuz geroz eta indibidualistago bihurtzen ari gara».

Bertzalde, herritarrek orokorrean geroz eta guttiago laguntzeaz aparte, jendeak geroz eta ardura guttiago hartzen duela eta komision geroz eta guttiago direla ere aipatu du, eta horrek eragin nabarmena duela ziurtatu du: «Hasieran komision sartu nintzenean indarrez eta gogotsu hasi nintzen, baina urteak pasatu diren heinean, gogo eta indar horiek guttiagotzen joan zaizkit hainbat arrazoiengatik. Batetik, jendea komisionetik atera egiten da eta ez da uzten duten hutsunea betetzeko jende berriak sartzen; eta bertzetik, —>

konpONTtipi
KONPONKETAK, MUNTAIAK, TAILER ELEKTRIKO-ELEKTRONIKOA
T +34 948 051 448
M +34 657 714 000
konpONTtipi@gmail.com
Elizondo (Na)

hiru ostalua
BERTAN JAN edo ERAMATEKO
Deskargatu gure APPa eta egin zure eskaera
... betikoa baina ezberdina
ONGI PASA BESTAK!
Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, ensaladak, fritoak...
Etorri eta dastatu gure berezitasunak!
Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219

ONGI PASA BESTAK!
BC BALLARENA
ERAIKUNTZAK
ELEKTRIZITATEA
Instalazio berriak | Berritzeak
Argindar fakturan aurreztu nahi?
fenienergía
delegatuak gara
LAN GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA:
teilatuak, zaharberritzeak, elektrizitatea, kalefakzioa, pladur lanak, iturgintza, etab.
Mortero tematikoarekin fatxadak jantzi eta erabat itxuraldatzen ditugu aintzinako etxebizitzaren tradizioa mantenduz
Abartan, 22 behea ELIZONDO
T. 948 452 395 - M 647 688 988 / 647 688 982
www.ballarenaconstrucciones.com

Ongi pasa bestak!
helvetia
ASEGURUAK
Tratu pertsonala,
zure beharrianak asetzeko,
konpromisoa eta segurtasuna,
pertsona erabakigarriak.
Santiago, 78 - ELIZONDO
T. 948 45 25 29 - M. 628 35 71 38
jfagoagaleiza@gmail.com



Ongi pasa bestak!

Urepel plaza, 7 Elizondo | T 948 580 390 | www.idoiaoteiza.com

Carlos Garaikoetxea Etxenike
ABOKATUA

DIBORTZIOAK | HERENTZIAK
ALOKAIRUAK | ALKOHOLEMIAK

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

ONGI PASA BESTAK!

Autxitxia
GASNATEGIA · QUESERÍA

Bertan egindako ardi gasna

Behi eta ahuntz gasnak saltzeko

Zenderena

Gaztanbera

Ongi pasa bestak!

Jaime Urrutia, 32 - ELIZONDO
848 45 57 30
autxitxia@gmail.com

ARTZAI GAZIA

BAZTAN ZAPOREAK

Ongi pasa bestak!

lixue
GARBITEGIA

OSTALARITZARAKO ZERBITZUA

AUTOZERBITZUA

ORDUTEGIA

09:00-13:30
15:30-18:00

Santiago 94 - 96,
31700 Elizondo

621 264 404
info@lixue.eus

KAXKA MELON
Zare tribua gara

- Errespetuzko hazkuntza
- Generorik gabeko jostailu jasagarriak
- Bihotza irekitzeko liburuak
- Haur eramaile ergonomikoak

Ongi pasa bestak!

www.kaxkamelon.com

Jalme Urrutia, 42 | ELIZONDO
620 480 445



jendearen borondateak huts egiten duen aldiro, komisiokoei lana bikoiztu egiten zaigu». Honen aitzinean, egoerari buelta emateko herritarren laguntza funtsezkoa dela jakinarazi du. «Gure lana bestak bideratzea da, baina ez denaz arduratzea. Horretarako herriaren eta herritarren laguntza ezinbertzekoak dira».

Komisioan parte hartzeak besten bertzelako ikuspuntu bat ematen duela esplikatu du: «Komisioan parte hartzeak bestetako ekintzak gehiago baloratzea egiten dit». Kanpotik kexatzea erraza izan ohi delako, baina barnetik diferente bizitzen delako dena. «Anitzetan kexatu egiten gara plazara ekarri ditugun taldeak ez direla onak, baina ez dugu esfortzu-

rik egiten talde horiei aukera bat emateko eta nahiago izaten dugu herriko ostatueta regetoia aditzera joan». Gainera, musika taldeak lotzea iduri duena baino zailago dela ohar-tarazi du eta aurten bereziki zailagoa izan dela onartu du: «Aurten inoiz baino lehenago hasi ginen bestak antolatzen urtero zailtasunak izaten ditugulako, eta aurten, gainera, Hatorxu Rocken azken edizioa data berdinean ospatuko denez, oraindik zailagoa izan da».

Aurpegiaren bertze alde

Zailtasunak izan arren eta bestak antolatzeak esfortzu eta lan handia suposatzen arren, merezi izaten duela gaineratu du Garmendiak. «Hasieran urduri eta kezkatu hasten ditut bestak, gauzak ongi aterako ez direnaren beldurrez. Baina egunak pasatu ahala eta dena ongi doala ikusi ahala, urte osoan egindako lanak bere fruitua eman duela ohartzen naiz eta pozik jartzen nau horrek». Azken finean, herriko bestak «egun politak» izaten direlako eta «jendea karrikara ateratzen delako elkarrekin ospatu eta ongi pasatzera».

Azkenik, gehien disfrutatzen duena gazte bazkaria dela aipatu du, «bertan sortzen den giroa paregabea» delako eta egun hori, Gazte Eguna, berezia delako. «Herriko gazteak elkartu egiten garen eguna da eta gero elkarrekin elkarre arratsaldea igarotzen dugu giro onean».





3Hiru Home

Ongi pasa bestak!

943 930 025 | Prudencia Arbide, 2 • IRUN | www.3hiruhome.com



esarte *Bestak gozatu!*

HARATEGIA ETA JANARI PRESTATUA

Jaime Urrutia, 35 • Elizondo
info@precocinadosarte.com

T. 948 580 128
www.precocinadosarte.com

INTZA TABERNA

Ongi pasa bestak!

T. 948 580 417

BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK



Mendi ostatura



Enkarguak hartzen ditugu bazkari eta afariak

Giro ederra!

T. 948 580 313

LABAYEN OSTATUA

Etxeko janari goxoa
Zatozte! eta on egin!

Santiago • ELIZONDO
948 580 338

ONGI PASA BESTAK!



Estetika-zentroa

Zuri

Edertasuna eta teknologia

ONGI PASA BESTAK!



- Orratzik gabeko infiltrazioa
- Zahartzearen kontrako tratamendu ez inbaditzailea
- Larruazalaren gaztetzea
- Garbiketa sakona
- Hidratazioa eta esfoliazioa
- Akne aktibo eta handituarentzako tratamendua



- 171ko tinkotasuna
- 52cm gerrialdea titikitu
- 167 Zelulitisa leundu



- Vform aurpegiko tratamendua
- "Impulsos de Juventud"

Santiago, 59 behea - Elizondo
Tel. 948 10 32 00
M. 676 14 00 81





mañonea
ASEGURUAK - AGENTZIA

Braulio Iriarte, 9 | ELIZONDO
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
info@mainonea.com

Ongi pasa bestak!

ASEGURUAK - AGENTZIA

www.mañonea.com

Barride KOMUNITATEEN KUDEAKETA (administrazioa, kontuak, obra...).

MOTA GUZTIETAKO ASEGURUAK

Kontable, zerga, lan eta juridiko **AHOLKULARITZA**

IBILGAILUEN TRANSFERENTZIAK

INMOBILIARIA 

lino plaza arkitektura

Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!









lino plaza y asociados, s.l.p. | jaime urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) | telf. 948 58 18 02 | fax. 948 58 14 12 | e-mail. info@linoplaza.com | web. www.linoplaza.com

tinkaenergiak
www.tinkaenergiak.com | tinka@tinkaenergiak.com
Pol. Ind. Zozaia Errota | ZOZAIA
948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032

**TXOKOTO
TABERNA**

ONGI PASA BESTAK!
Malkorra
Txokolatea urrakin eginga
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia
Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

**GORA
SANTIOAK!**
Allianz
M. Petirena Aseguruak / Inbertsioak
Saskaitz 3 31700 ELIZONDO

«Bestak denok disfrutatzen ditugu, bakoitzak bere modura»

AROA URTEAGA ELIZONDOKO BESTETAKO KARTELAREN EGILEA



Aurten Aroa Urteaga elizondoarrak sortu du Elizondoko bestak jauntzi-ko dituen kartela. «Lagunen arras laguna» eta «disfrutatzeko beti prest» dagoen neska «alai» gisa definitu du bere burua eta, hortaz, bere lanean lagunek protagonismoa hartu dutela ere azaldu du: «Nire inspirazio iturri nagusia nire esperientzia pertsonala izan da. Baina bertze puntu garrantzitsu bat, nire inguruko lagunen esperientziak eta bestak bizitzeko modu anitzak biltzea izan da».

Jiraka eta biraka

Bestetako antolakuntza komisioko kartela egitea proposatu zionean bere buruaren baitan ideiak jiraka eta

biraka hasi ziren. Hala ere, hasieratik argi izan du sortu nahi zuen kartela «arras pertsonala» izanen zela, «baina atzendu gabe bestak denok disfrutatzen ditugula, bakoitzak bere maneran».

Mosaiko laranja

Bere kartelean «mosaiko moduan Elizondoko bestak definitzen dituzten elementuak ageri dira». Horien artean, erraldoiak, buruhandiak, lagunak edota mus txapelketak. Bertalde, laranja kolorea nagusitzen da «transmititzen duen sententzia berotasuna, hurbiltasuna eta uda giroa direlako». Eta beretako Elizondoko bestak definitzen dituzten hitzak

ONGI PASA BESTAK!

**LABORRA
ARKITEKTOAK**
- Gabriel & Ines -
www.laborra.com
gabriel@laborra.com
Santiago 66, 1º ELIZONDO 948.580.122

arteka
arkitektura arquitectura
Tel. 948580610 Plaza. Dr. Balda 1- 1. A
info@artekabaztan.com 31700. Elizondo Baztan
www.artekabaztan.com

horiek berak direlako: hurbiltasuna eta uda. Horrela, hainbat elementu eta laranja kolorea fusionatuz edozein herritarrek bere burua bertan islatuta ikusi ahal izateko kartel bat eratu nahi izan duela esplikatu du: «Bakoi-tzak bere modura bizitzen ditu bestak, baina sentimendu hori kartelean islatzea izan da nire helburua, edozein herritar nolabait ere identifikatuta sentitzeko».

Prozesu gazi-gozoa

Lana sortzeko prozesua gazi-gozoa izan da, bere buruarekin «zorrotza» delako eta lanak akitutzat ematea kostatzen zaiolako. «Zaila da burutan duguna diseinatzea eta guk imajinatzen dugun bezala irudikatzea. Horregatik, etengabe probak egiten aritu naiz, gustuko emaitza batera ailegatu arte». Ideiak definitzea «makurrena» izan dela gaineratu du eta «kezkatuta» ibili izan dela ere aitortu du, nahiz eta kezka horiek gero desagertu. «Behin marrazten hasita eta kartelak forma hartzen zuela ikusita, blokeotik ateratzea lortu nuen eta

kezkak desagertu egin ziren». Azkenean, bere estilo propioa txertatuz eta kartelean bere marka utziz, egin-dakoarekin kontent gelditu da.

Urteko aste hoberena

Elizondoko bestak «urteko aste hoberena» dira Aroarentzat eta, hortaz, aurtun ere «ahal den neurrian egun guztiak aprobetxatzen» saiatuko da. «Herriko bestetan lagun guztiak pozik eta alai gaude; eta alde batera gelditzen dira urtean zehar izandako momentu txarrak, gure energia guztia bideratzen baitugu ongi egoteko». Hala ere, bere egun gustukoena gazte eguna dela argi utzi du: «Uztailaren 26a da niretako egunik politena, kua-drillen bazkaria, arratsaldeko txaranga, gaueko giroa...» Adinarekin gauak geroz eta gehiago disfrutatzen direlako herriko bestetan. «Modu batean, orain, gauak gehiago bizitzen ditugu egunak baino». Azkenik, jende guztiari gonbidapena luzatu nahi izan dio: «Etorri nahi duenak ongi etorria izan dadila Elizondoko bestetara!».



ANTXITONEA
Trinketea

HOSTAL ANTXITONEA

23 LOGELA

BAINUA | AIRE GIROTUA | TB
WIFI | APARKALEKU PRIBATUA
GOSARIAK | AFARIAK

Herri erdi erdian, Baztan errekaaren ondoan

Braulio Iriarte, 16 ELIZONDO 948 581 807 hostal@antxitonea.com www.antxitonea.com

HOTEL TRINKETE ...

20 LOGELA

BAINUA | AIRE GIROTUA | TB
WIFI | GOSARIAK | AFARIAK

ARKUPÉ
Shokolatex

1984

IRURITA
Dukesa plaza
T 948580059
T 948452021
(Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948452393

www.arkupegozotegia.com

indauto
TAILERRAK

**Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Ibilgailuen salerosketa**

ongi pasa bestak!

Ind. Ordoki · Arizkun (NA)
T. 948 453 488 · M. 675 324 960

info@indauto.es

ferreteria

Quevedo

burdindegia

Santiago, 31 ELIZONDO (Nafarroa)
Tel.: 948 580 234
info@ferreteriaquevedo.com
www.ferreteriaquevedo.com